

M^a CONCEPCION UGALDE IZETA Begarako Udaleko Idazkariak

EGIAZTATZEN DU: Udalbatzak 2023ko irailaren 25ean egindako ohiko bilkuran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuela:

“Marco Segurola Jimenez jaunak (NAN: 72441068-S), “Soraluze S.Coop” enpresaren izenean (IFZ: F-20023057), Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 44. Areako Plan Bereziaren zirriborroa eta dagokion ingurumen-azterlan estrategikoaren dokumentua aurkeztu zituen, ingurumen-organo eskudunak dagokion ingurumen-txosten estrategikoa emateko (2023ko otsailaren 14ko udal erregistro-sarrerarekin) –076/23 esp.–.

Begarako Udalak “Soraluze S.Coop” enpresaren eskutik jasotako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 44. Areako Plan Bereziaren zirriborroa eta dagokion ingurumen-azterlan estrategikoaren dokumentua Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Departamentura igorri zituen otsailaren 16an, ingurumen-organo eskudunak dagokion ingurumen-txosten estrategikoa emateko.

Marco Segurola Jimenez jaunak (NAN: 72441068-S), “Soraluze S.Coop” enpresaren izenean (IFZ: F-20023057), Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 44. Areako Plan Berezia aurkeztu zuen (2023ko otsailaren 22ko udal erregistro-sarrerarekin).

Alkateak 2023ko martxoaren 23an emandako dekretu baten bidez hau erabaki zuen:

- 1.- *A-44 Areako Hiri Antolakuntzako Plan Bereziari hasierako onarpena ematea.*
- 2.- *Aipatutako onarpena Eusko Jaurlaritzak emango duen ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzaren baitan dago; lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 31-3 artikulua xedatutakoaren arabera.*
- 3.- *Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 85. artikuluan adierazten duen moduan, plan bereziak finkatzen duen gunean udal baimenak etetea, eremuko plan bereziak behin betiko onarpena jasotzen duen arte edo gehienez urtebeteko epez.*
- 4.- *Onartutako espediente (dagokion ingurumen-azterlan estrategikoaren dokumentuarekin batera), Idazkariaren eginbidearen zigiluarekin, 20 eguneko epez jendaurrean jartzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 95. eta 97. artikuluetan adierazten duen moduan. Halaber, erabakiari dagozkion iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Lurralde Historikoan gehien irakurtzen den egunkarietako batean argitaratzea. Modu berean, udaleko web-orrian argitaratzea.*
- 5.- *Sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei hasierako onarpena eman zaion A-44 Areako Hiri Antolakuntzako Plan Bereziaren dokumentua jakinaraztea, dagokion ingurumen-azterlan estrategikoaren dokumentuarekin eta erabakiarekin batera, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten.*
- 6.- *Erabakia jakinaraztea Marco Segurola Jimenez jaunari, “Soraluze S.Coop” enpresaren izenean.*

Plan Bereziaren hasierako onarpeneko iragarkia 2023ko apirilaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta egun berean ere “El Diario Vasco” eta “Berria” egunkarietan. Halaber, eta modu berean, udaleko egoitza elektronikoan ere argitaratu zen.

Jendaurreko epean ez da inongo alegaziorik aurkeztu.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 44. Areako Plan Bereziaren hasierako onarpeneko dokumentazioa bidali zen Euskadiko Ur Agentziara, Gipuzkoako Urak-Ur Kontsortziora, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako Departamentura, Estatuko Garraioen, Mugikortasun eta Hiri Agendarako Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritzara eta Estatuko Gai Ekonomikoen eta Eraldaketa Digitalaren Ministeriora.

2023ko martxoaren 31ko udal erregistro-sarrerarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako Departamentuak aldeko txostena aurkeztu du.

2023ko apirilaren 14ko udal erregistro-sarrerarekin, Estatuko Gai Ekonomikoen eta Eraldaketa Digitalaren Ministerioak aldeko txostena aurkeztu du.

2023ko maiatzaren 3ko udal erregistro-sarrerarekin, Euskadiko Ur Agentziak aldeko txostena aurkeztu du.

2023ko maiatzaren 22ko udal erregistro-sarrerarekin, Estatuko Garraioen, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritzak emandako txostena aurkeztu du eta bertan, besteak beste, adierazten du Plan Berezia ez dela interes orokorreko inongo aireporturen aireportu-zerbitzu gunean kokatzen, eta ondorioz ez dagokiola txostenik egitea.

2023ko ekainaren 2ko udal erregistro-sarrerarekin, Gipuzkoako Urak-Ur Kontsortzioak "Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko A-44 Areako Plan Bereziaren" baliabide eta azpiegitura nahikoen ziurtagiria aurkeztu du.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak, 2023ko martxoaren 28ko udal erregistro-sarrerarekin aurkeztutako idatzian, sustatzaileari eskatzen zion 10 eguneko epean zehazten zituen akatsak zuzentzeko. Bergarako Udalak martxoaren 30eko udal erregistro irteerarekin igorri zion idatzia sustatzailea den "Soraluce S. Coop." enpresari.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak uztailaren 4an emandako ebazpenaren bidez formulatu du Bergarako A-44 eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa (2023ko uztailaren 5eko udal erregistro sarrera).

Marco Segurola Jimenez jaunak (NAN: 72441068-S), "Soraluce S.Coop" enpresaren izenean (IFZ: F-20023057), ingurumen-txosten estrategikoa eman eta aldeko txosten sektorialak jaso ondoren, Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 44. Areako Plan Berezi egokitua aurkeztu du, Udalak behin betiko onarpena eman diezaion (2023ko uztailaren 28ko udal erregistro-sarrerarekin).

Udal arkitekto zerbitzuburuaren eta Hirigintzako Administrazio Orokorreko teknikariaren txostenei eta Lurraldeko batzordearen proposamenari jarraituz, Udalbatza osatzen duten 17 udalkideetatik bertaratutako 16ek, aho batez, honako hau erabaki dute:

- 1.- A-44 Areako Hiri Antolamenduko Plan Bereziari behin betiko onarpena ematea.
- 2.- Etenda zeuden udal-baimenen suspentsioa altxatzea.
- 3.- Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 2. xedapen iragankorrean dioenari jarraituz, lege horrek aurreikusten duen prozedura berriari jarraiturik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketako Departamentura behin betiko onarpenaren espediente administratiboa eta dokumentu tekniko zigilatua paperean eta euskarri informatikoan bidaltzea, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 89. artikuluan agintzen duen moduan.
- 4.- Aurreko puntuan zehazturiko espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidali ondoren, 89. artikuluan agintzen duena aintzat hartuta, udal-erabakiaren eta plan bereziaren hirigintza-arauen iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta, halaber, Lurralde Historikoan gehien irakurtzen den egunkarietako batean. Modu berean, udaleko web-orrian ere argitaratzea.
- 5.- Erabakia jakinaraztea Marco Segurola Jimenez jaunari, "Soraluce S.Coop" enpresaren izenean."

Eta horrela jasota gera dadin, luzatzen du egiaztagiri hau, Bergaran, 2023ko irailaren 27an.

